ASTEKARIA - 2008ko maiatzaren 30ean - XII. urtea - Usurbil, 325. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Astelehenean bukatuko da Udajolasen izen emateko epea



# Udarregi ikastolaren egun handia


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
EXCELENCIA
© 943 36 46 00
www.lhusurbil.com
Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak
Administratiboa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Produkzio zerbitzu eta manten.
Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.
AURREMATRIKULA Ekainaren 2tik 13ra

kaffa
· % 100 Kolonbiako kafea alean edo eho berria etxera eramateko "La casa del cafe".
· Batido naturalak.
· Ezeizako tarta edo pastelak enkarguz.
· Sukalde tradizionalean eginiko otorduak prestatzen dira aurrez eskatuta.
Errekatxiki, 2 · Tel.: 943 24 33 71 · USURBIL

Albistea iruditan !!

# Ziklomotorrek ere azterketa pasa behar

Hiru urte baino gehiago dituzten ziklomotorrek azterketa teknikoa pasa behar dute. Baina ez da oso urruti joan behar. Askatasuna plazan, azterketa hori egiteko aukera izango da ostegun honetan eta baita ekainaren 12an ere. Hori bai, azterketa teknikoa pasa ahal izateko, lehenik Udaltzaingora deitu behar da, txanda hartzeko. Telefono zenbakia, hauxe: 943 361 112.

22 euro ordaindu behar dira azterketa teknikoa pasa ahal izateko.



ZIKLOMOTOR BAT AZTERKETA PASATZEN, AURREKO OSTEGUNEAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

MATRIKULAZIO GARAIA ZUMARTEN — 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN — 6. OR.

IGANDEAN, IKASTOLAREN EGUNA — 10. OR.

JUDO TALDEA, GOI MAILAN — 14. OR.

Usurbilgo Udala

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza








IDOIA TORREGARAI

# Pretty woman

Neskontzat (askorentzat behintzat) arropa erostearen kontua izugarrizko une delikatua izaten da. Lehenik eta behin, denda bakoitzak sudurraren puntan jartzen zaion tailajea jartzen du; hau da, batean 38a dena, bestean 40a da eta halako bestean 36a (bigarren kasuan ia bihotzekoak ematen digu eta hirugarrenean Gisele Bundchen garenaren eskizofrenia sartzen zaigu). Hori, arropa sartzeko zortea baldin badugu, zeren batzuetan ez dakizu arropa dendan edo panpinentzako akzesorioak erostekoan sartu zaren. Gauza bat da XS taila egotea (gorpuzkera hori ere badagoelako) baina gehiengoak ez XS, eta ez S; M eta L-a behar izaten dugu, eta egia esan, toki askotan horiek topatzea desertuan pinguino batekin topo egitea bezalakoa da.

Beste kontu bat ez dudana oso ondo ulertzen arropa dendetatik probageletako argiztapena da. Stephen Kingek idatzitako pelikula baterako prestatuta daudela dirudi. Suposatzen da dendari saltzea interesatzen zaiola eta ondorioz, argalago egiten duten ispiluak jartzen dituztela, ezta? Ba jakin dezatela inbertsio hau popatik joaten dela bertan dagoen argiengatik. Normalean sukaldean izaten ditugun fluorestente indartsuen antzekoak jartzen dituzte, bi ondorio beldurgarriekin: 1, Casper mamua baino kolore txarragoarekin ikusten zara, eta 2. Celulitisaren kontrako borroka guztiz galdua duzula konturatzen zara.

Noski, egoera honen guztiaren ondoren oraindik zerbait erosteko gogoa geratzen bazaizu, ez da optimista zarela, ez, HEROIA ZARA!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - **Idoia Torregarai** - Joxe Piñas - Unai Agirre

## Ika-mika

# Bihotz-bihotzez, eskerrik asko

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak, bere sorrerako ehungarren urteurrenean eskerrak eman nahi dizkie urte berezi honetan burutzen ari garen ekintza eta ospakizun ugarietan bere laguntza luzatzen ari zaizkigun herriko udala, elkarte, herritar eta bazkideei. Gaurkoan, hala ere, igaro berria den Sagardo Egunaren antolatzaileei bihotz-bihotzez gurekin gogoratu izana eskertu nahi diegu.

Edalearena baino lehenago baserritarronak dira sagarra, sagardogintza eta sagardoa bera. Honen adierazle, hor ditugu aurtengo urtean zehar sagastia sortu eta zaintzeko ikastaroak eta Sagardo Egunean bertan sagardoa egiteko tresneria eta abar ezagutzeko jarri genuen erakusleihoa.

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak Elkarteak hogeitazazpi urtetan egin duen lan ikaragarriari esker herriaren ikur bilakatua da Sagardo Eguna. Eta igaro berria den azkenekoan gure ehungarren urtebetetzeaz jabetuta XXVII Sagardo Egunari lehen sagardo botila irekiz hasiera emateko izendatu zuten gure kooperatiba. Ohore handi bat izan da. Beste ehun urtetan jarraitzeko kemena ematen duten ohore horietako bat. Ea ba ehun eta hogeitazazpigarren Sagardo Eguna berrehun urte betetzen dituen kooperatibak irekitzen duen. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak Elkarteari mila eskerrik asko. Eta usurbildar guztioi ekainak 8, igandea, kooperatiba sortu genuela ehun urte betetzen diren egun bera behar bezala ospatzeko antolatu ditugun ekintzetan ikusiko garelakoan, agur t'erdi.

**Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba**

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: ekainak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 2.





# Matrikulazio garaia Zumarte Musika Eskolan

**Laster amaituko da ikasturtea. Aste gutxi barru, oporretan murgilduko dira gaztetxoak. Baita Zumarte Musika Eskolako ikasleak ere. Baina oporrak hartu aurretik, datorren ikasturteko matrikulazioa osatu beharko da. Datorren astelehenean hasiko da izen-ematea.**

Ikasgaiak ugari aukeran: Musika mintzaira, instrumentu ezberdinak... Eta ez bakarrik gazteentzat, eskaintza helduei ere zuzenduta dago. Matrikula osatzeko, Zumarte Musika Eskolara joan behar da izena ematera. Datorren astean, goiz edo arratsaldez.

**2008-2009 IKASTURTEA**

EGUNAK: Ekainak 2-6 bitarte.

ORDUTEGIA: goizez (egunero, aste--azkena ezik), 10:00etatik 13:00era.
Arratsaldez (egunero): 16:30etik 19:30era.

INFORMAZIOA: Zumarte Musika Eskola, Kale Nagusia, 45.

TELEFONOA: 943 37 15 94.

IKASGAIAK: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, perkusioa, klarinetea, abesbatza, eskusoinua, alboka, pianoa, txistua, kitarra, flauta, alboka, talde instrumentalak.

GUTXIENEKO ADINA: 4 urte.



MATRIKULAZIO EPEA EKAINAREN 2TIK EKAINAREN 6RA LUZATUKO DA.

# Imsersoko oporretara joateko izen-ematea ekainaren 13an amaituko da

Dagoeneko zabalik dago izen ematea. Oporraldi hauetara joateko baldintza hauek bete behar dira: 65 urtetik gorakoa izatea, edo jubilazioko pentsionista, 55 urte edo gehiago dituen alarguntzako pentsionista edota 60 urtetik gorako bestelako pentsionista. Hauek bakarrik edo senar-emaztearekin egin dezakete bidaia, azken hauek baldintzak bete beharrik ez dutelarik. Eskaintzen diren bidaiak iraupen ezberdinetakoak dira, 8 eta 29 egun artekoak, prezioak egun kopurua eta joan nahi den lekuaren araberakoa izanik. Andaluzia, Katalunia, Murtzia, Valentzia, Balear irlak, Kanariar irlak eta Portugal dira eskainitako lekuak; kultur bidaiak eta naturazkoak ere badira aukeran. Prezioak 135 eta 570 euro artekoak izan daitezke, aukeratutako bidaiaren arabera. Prezio horretan sartzen da joan-etorriko bidaia, egonaldia pentsio osoan, asegurua, hoteleko mediku zerbitzua eta animazio programa. Informazio gehiago Udalean edo 901 109 899 telefono zenbakira deituta.



INFORMAZIO GEHIAGO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUETAN JASO DAITEKE.

**Ika-mika !!**

## Inurri Artista Taldea!

Loak ez gaitu hartzen. Lanean goiz eta gauez. Guk egindako bidetik mugitzen gara eta, oztopoen aurrean, ekinaren ekinez egiten dugu aurrera. Egunero zerbait ikasten da eta honek bere etekina ematen du.

Gipuzkoa osoan zehar, inurritegi desberdin askotatik lana egin behar izan dugu. Artista bakoitzak egindako lanari, bere balorea ezartzen dio. Gu inurri xume batzuk gara, baina ni artista izan gabe, nire inurri taldetxoari egindako lanagatik baloratzeaz gain, zoriondu behar diot. Zerbait aipatzekotan, Legazpin egindakoa, hunkigarria izan dena. 41-44 emaitza lortu eta gero, hauek bai Inurri Artista Taldea!

Inurri talde honetako helduena naiz, behar bada, hezteko lanean bideratzen saiatzen dena. Zorionez sortzen zaizkidan egoerak, inurritxoen laguntzaz, nahikoa erraz bideratzen ditut. Tamalez, bestelakoak ere askoz gutxiago izan arren, gertatzen dira. Hauek ere nahi izanez gero, konponbidea badute. Hau guztia eta gero, Inurritxook lana egin eta gero, helburua lortu egin dugu.

Aurten hamabost inurri txiki nirekin lanean jardun dira eta hamasei lagun garela seguru naiz. Ederra Inurri Artista Taldea!

**Jon Gallego (Jota)**

KALEZAR ALOÑA PULIDO

# San Juan gauaren atarian



Ez zaigu batere gelditzen ekainean sartzeko. Hil honetan guztiok dakigun bezala San Juanak ditugu Kalezarren, herrian urteko lehenengo festak. Gu San Juan gaua ospatzen hasi aurretik munduko hainbat zibilizazioek ere ospatzen zuten egun edo garai hau; Udako solstizio gaua. Badago esaera zahar bat, solstizio gauean eguzkia gelditu egiten dela dioena, izan ere, solstizio hitzak, latinezko esaldi batean du jatorria, eta “eguzkia gelditu egiten da” esan nahi du. Gertaera honetaz azkar ohartu ziren munduko kultura ezberdinak, eta festa egun garrantzitsua izan da betidanik.

Solstizio gauean, beraz, herritarrak suaren inguruan biltzen ziren. Gau hauetan, garrantzitsuena elikagaien elkartrukea zen, inork janari faltarik izan ez zezan. Elkartasun hau derrigorrezkoa zen, izan ere, batzuk gosez hilez gero, honek talde osoari egiten baitzion kalte.

Udako solstizioa Euskal Herrian, akelarre baten bidez ospatzen zuten. Akelarrea ez zen urtero egun berean egiten, solstizio gauetik gertuen zegoen ilargi beteko gauean baizik. Hemen, Mari, euskal mitologiako jainkosa nagusia,



gurtzen zen. Herritarrak inguruko kobazulo batean biltzen ziren eta ospakizuna emakumerik zaharrenak gidatzen zuen. Gainera, emakume horiek mundu honetakoak ez diren pertsonen botereak zituztela ere uste zen. Akelarrea eta sua, izpiritu txarrak uxatzeko erabiltzen zen aldi berean, nahiz eta funtsean, ospakizun bat zen.

SANTUENEA IÑAKI LARRAÑAGA

# Antzerkia



Askotan bezala, ez dut berri gehiegirik kontatzeko, baina zerbait kontatu beharko.

Batetik, jaiotzen ikastaroa aurrera doa eta jendea gustora joaten da, emaitzak ere hor daude. A zer odolki, lapiko etab. egiten dituzten, jateko modukoak. Askok ikusiko zenuten Aialde-Berri sagardotegian, honen guztiaren adibidea. Irakasleak berak egindako sagardotegi bat zegoen bertan ikusgai eta esan beharra dago oso dotorea zela.

Antzerkian ere emaitza onak ikusi genituen. Seiretan genuen hitzordua eta ordurako han ginen ate ondoan. Alexen ahotsa entzun genuen poterotik “bronka” txiki bat botatzen, tentsioa nabaritzen zen bertan. Lanean dagoenari lanean lasai utzi behar zaiola... Gure txikiak ikusteko irrikaz geunden eta merezi izan zuen. Benetan lan txukuna egin zutela iruditu zitzaidan. Antzezlan motza omen zen baina oso motza iruditu zitzaigun gozatzen ari ginenontzat eta horrela hobe gainera. Bukaeran, Alexi zorionak ematera joan nintzenean bera ere gustora zegoen, ez da gutxiagorako, segi horrela kuadrila. Eta esandakoa; lanean ari denari, lanean lasai utzi behar zaio...

ATXEGALDE AINARA BORDAGARAI

# Zaborra!



Kaixo herritarrok! Ez dakit jabetu zareten baina gure auzoan zaborra botata dago. Mahaspildegi elkarte ondoko zelaian hainbat hondakin ikus daitezke; oheko koltxoia, arropa zaharrak… eta beste hainbat zabor. Ez dakit nola iritsi diren hona hondakin hauek, baina benetan bitxia iruditu zait. Egunetik egunera gure auzoan xelebrekeria gehiago gertatzen da! Nori bururatuko zitzaion zaborrak hor botata uztea? Nork daki!

Kontuak kontu, geure auzoko etxe berriak ikaragarrizko abiaduran hazten doaz. Egunetik egunera garaiera handiagoa dute. Laster, nire etxeko balkoitik gure elizako kanpandorrea ere ez dugu ikusiko. Pena ematen du etxeko balkoira atera eta gure herriko kanpandorrea justu justu ikustea. Gauetan eliza argiztatua benetan polita egoten baita.

Amaitzeko esan, asteburu honetan kontzertuak izango ditugula herriko frontoian, aitzakia ederra parranda bikaina egiteko. Ondo pasa!

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Urdaiagako kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

AGINAGA

AITOR HELETA

# Abiadura Handiko Trena



Hilaren 31n Gelditour ekimena bukatuko da Donostian. Bertan manifestazio nazionalaz gain, jaialdia izango da egun guztian zehar, herri kirol, sagardo dastaketa, bertso saio, umeentzako titiritero eta kale animazioarekin, eta kontzertuak gauean Usurbilen.

Proiektu suntsitzaile honen kontra egoteko arrazoiak baditugu:

-Konponezinezko kaltea egingo dio Ama Lurrari.

-Lurralde desorekak areagotuko ditu.

-Tren garraioa zerbitzu publiko eta unibertsala delako kontzeptua lurperatu egiten du.

-Errentaren banaketaren eta gastu sozialaren murrizketa eragingo du.

-Ez ditu egungo trafiko eta garraio arazo larriak konponduko.

-Prekarietate laborala areagotu eta deslokalizazio industriala erraztu egingo du.

-Neoliberalismoaren adibide esanguratsua da.

-Inposizioaren sinonimo da.




Gure herria kasu honetan fisikoki ez dute ukituko baina errausgailuaren errezeta berdina erabiltzen dute, eztabaidarik ez eta inposaketa bai, horregatik animatzen zaituztet parte hartzera larunbat honetan Donostian eta Usurbilen antolatutako ekintzetan.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

# Bi bider pentsatu gabe



Ez naiz inora joan, eta ez naiz inon ezarri...pentsatzeko. Pentsamendua bera etorri zait, nengoen lekuan nengoela, ez dudala ezertan pentsatzen.

Ez dudala pentsatzen inguruan, ez herrian, ez probintzian, ez munduan... eta ez ezertan. Ez dudala zerbait entzun, zerbait irakurri eta behar bezalako gogoetarik egiten. Besterik gabe, irentsi eta ez ditudala behar bezala edo nahi bezala neureganatzen. Hurrena zer eginkizun dudan zain itxaroten egoten naizela, eta aitzakia ukitua badu ere, baita –nik hala nahi gabe ere bai– hurrengo eginkizunak irensten nauelako ere.

Biziaren erritmoa areagotuz doa (nork areagotzen duen gogoeta ondo egin gabe nago, baina areagotuz doa, ezta?). Zuretzako soilik den denbora aurkitzerakoan ere nekez naiz nonbaiten jarri –isilik irrati, telebista eta musika– eta pentsatzen jartzeko. Pentsatu egin behar dudala pentsatzeko ere ez dut pentsatzen... exerita, patxadan egotea, denbora galtzea bailitzan.

Hobetzeko omen gaude. Beraz, bi bider pentsatu gabe, gehiago pentsatu behar dut.

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

# Argi Zubietan!



Ongi etorri zubietarren dantza ikastarora, denak onartzen ditugu, altuak, baxuak, argalak, bizardunak, umeak, helduak eta baita pertsonaia mitologikoak ere.

Orain dela bi aste hasi ziren Zubietako galtzagorriak dantzan, nahiz eta tartean hainbat basajaun eta Tartalo egon. Baina hala ere ez zen lamia falta, bere ahate hankak eduki arren, usoak bezain arin mugitzen dituelako. Tartaloak erdizka, galtzagorriak "katxondeoan", basajauna oihuka eta lamia bitartean urrezko orraziarekin bere ile hori liraina orraztuz, hau koadrila. Ikastaroa bukatu ondoren, koadrila ugaritzen da, sorginez eta aztiez, alegia, ( "uff" hauek bai pertsonaiak) , zerua lainotsu jarriz beraien etorrerarekin batera. Galtzagorriak hankak ezin gelditu ibiltzen dira bustitzeko beldurrez, eta basajaun eta Tartaloak korrika kobazuloetara joaten dira babes bila. Afalorduan, galtzagorriak lasaitu egiten dira, eta Barazar izeneko kobazuloan sorgin, azti, galtzagorri eta basajaunak akelarrea ospatzen dute solomo eta gazta ogitartekoz.

Orduan, zubietarrok badakizue lurrikararik sumatzen baduzue lasai egon, Zubietako dantza ikastaroa baita.

# Datorren astelehenean amaituko da
# Udajolas-en izena emateko epea

**Gaztetxoen egutegiak argi dio; ekainean, ikasturtea amaitu eta uztailean ondo pasatzera. Euskaraz eta giro alai zein dibertigarrian bada, hobeto. Hilabete horretarako Usurbilgo Udalak, NOAUA!rekin elkarlanean, ezaugarri horiek betetzen dituen eskaintza antolatzen ari dira; Udajolas udaleku irekiak. Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 3ra arte.**


EKAINAREN 3AN AMAITUKO DA UDAJOLASEN IZENA EMATEKO EPEA.

Udajolasen izena ematea ixteko egun gutxi geratzen da jada; ekainaren 3an amaituko da epea. Eguna kontuan izan, epez kanpoko izen ematerik ez baita onartuko. Kopurua ere aintzakotzat hartu beharra dago. 95 plaza daude. Honenbestez, izena ematen duten lehen 95ak onartuko dira. Gehiago ez.

4-12 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendua dagoen ekimena uztailaren 3an hasi eta 30 arte luzatuko da. Goizeko ordutegian izango da, 9:30-13:30 artean.

### Izen-ematea, NOAUA!n

Udarregi ikastolan banatu dira jada izena emateko orriak. Baina udaletxean eta Sutegin ere eskura daitezke. Orri horretako datuak bete eta Euskadiko Kutxan zabaldu den kontu korrontean dirua sartu behar da, haur edo gaztetxoaren izen abizenak adierazita.

Hilabete osoko eskaintzan parte hartzearen truke, 70 euro ordaindu behar dira, familia ugariek izan ezik (59 euro). Kontu korronte zenbakia honakoa da: 3035 0140 30 1400900017.

Diru kantitatea Euskadiko Kutxako kontu horretan sartu izanaren ordainagiria eskuratutakoan, haren kopia eta izen emate orria datuez beteta, biak hartu eta NOAUA!ra hurbiltzea besterik ez da geratzen. Bordaberri kalea 3 zenbakira hain zuzen. Astetartean, honako ordutegian: 17:00-19:00 artean.

# Txotxongiloak frontoian

**Geure bizitzetan hainbeste eragiten duten birusak nonahi dira. Baina mendera al daitezke? Erantzuna, ostiralean, maiatzak 30, 18:00etan frontoian hasiko den txotxongilo saioan. Jarraian, txokolate jana.**

Ikastolaren Egunaren atarian, Hitz-Aho Guraso Elkarteak eta Kutxak frontoian “Birusak erasoka datorzkigu” txotxongilo saioa antolatu dute. Birusak eskolara joan eta maitemindu ote daitezkeen edota tamaina txikikoak zergatik diren erakutsiko da. Han agertuko da birusei aurre egin nahi dien Toni La Sal pertsonaia ere, bere garbiketa-gurditxoarekin.


TXOTXONGILOAK ETA GERO TXOKOLATEA BANATUKO DA FRONTOIAN.

Txotxongiloen emanaldia amaituta, sabela gozatzeko aukera eskainiko dute antolatzaileek, txokolate janarekin. Frontoian bertan.

## Ama baten bakarrizketa Sutegin

**Bakarrizketa komiko eta hunkigarri baten bidez, ama semeen arteko harremana ardatz hartuta dator Edurne Agirrezabala aktorea.**

Unibertsitatean ikasten dabilen semea eta garai batetik hona hezteko modua zenbat aldatu den ikusita, birziklatu nahi duen bere ama. Bien arteko hartu emanari buruzko bakarrizketa umoretsu eta hunkigarriari buruzko bakarrizketa maiatzaren 30ean Sutegin, 22:30ean. Sarrera doan. Emanaldia Hitz Aho Guraso Elkarteak eta Kutxak antolatu dute.

## Kantu-afari batekin bukatuko da

# Zubietako Kultur Astea

**Eskola Txikikoen dantza eta abesti emanaldiarekin hasi zen aste hasieran, Zubietako Eskola Txikiko guraso elkarteak herriko beste elkarte batzuen laguntzarekin antolatu duen kultur astea. Oraindik ekitaldi gehiago izango da. Haien artean, azpimarratzekoa larunbatean Olatz Altuna laguntzeko Zubietako frontoian egingo den kantu afaria.**



Astelehenean musika saioarekin hasi zen Kultur Astea.

Txalo zaparrada jaso zuten Zubietako eskola txikiko ikasleek, pasa den maiatzaren 26an eskola atarian eskaini zuten dantza eta abesti emanaldian. Trebetasun ugari dituztela argi utzi zuten gaztetxoek, begira zituzten senitarteko eta lagunen aurrean. Eta ederki asko pasa zuten gainera, kantuan eta dantzan.

Kultur Astea hasi baino ez da egin. Ostegunean, maiatzak 29, Emausek bidezko merkataritzaren inguruko tailerra eskainiko du 18:00etan frontoi inguruan. Ostiralean, maiatzak 30, Eskola Txikira ipuin kontalaria etorriko da 17:00etan, eta 18:00etan nesken palaren eta Joko Garbi erakustaldia emango dute frontoian. Segidan, txokolatada egongo da. Astebururako, berriz, in-line patinaje ikastaroa antolatu dute.

### Larunbatean, kantu afaria

Zubieta Pilota Elkarteak kantu afaria antolatu du frontoian, larunbaterako, maiatzak 31. Menua, honakoa: sarrerakoak, arrain zopa, txuleta eta entsalada, kafea, postrea, kopa eta purua. Ederki afaltzeaz gain, kantuan aritzeko aukera paregabea izango da. Soinu-jole batek girotuko du abesteko unea. Jasotako dirua Olatz Altunari laguntzeko izango da.

## Asteburu honetan, patinaje ikastaroa

Zubietako Eskola Txikiak antolatutako kultur astea osatzeko, in-line patinaje ikastaroa prestatu dute asteburu honetarako. Zubietako gazteek nahiz adinduek eman dezakete izena. Hori bai, materiala norberak eraman beharko du: patinak, babesak eta kaskoa.

Bi egunez luzatuko da ikastaroa, larunbatean hasi eta igandean bukatu. Bi egunetan, goizeko 9:00etan hasi eta goizeko 11:00ak arte iraungo du ikastaroak. Zubietako frontoi estalian egingo da ikastaroa. Izena ematerakoan, 5 euro (familika) ordaindu beharko dira. Egunean bertan egin daiteke izen-ematea frontoian.

Antolatzaileek ohartarazi dute "ez dutela inongo ardurarik hartuko gerta litezkeen istripu edo lesioen aurrean".

















## Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria

# "Espazio beharrari lehenbailehen irtenbide bat aurkitu behar diogu"

**Ikastolaren Eguna ospatuko dute Udarregin, igande honetan, ekainak 1, 2007-08 ikasturteak ia berea egin duen honetan. Ospakizunetatik haratago eta datozen urteei begira ordea, ikastolak baditu aurre egin beharreko zenbait erronka ere. Egungo ikastolako zuzendari Mariaje Imazek horien guztien berri eman dio NOAUA!ri.**

**NOAUA! Lan uztea egin zenuten orain egun batzuk? Zer dela eta?**

**Mariaje Imaz.** Orain arte ikastolekin dagoen finantzazio hitzarmena aspaldikoa da, 1992koa. Oso zaharkituta gelditu da, gaur egun hezkuntzak dituen erronkei aurre egiteko ez da nahikoa. Egin den eskaera da akordio berri bat erdiestea, gaur egungo hezkuntza beharrei egokitasunez erantzutea ahalbideratuko duena. Azken ikasturteetan langileen lan baldintzak hobetzea planteatu izan denean, bazirudien soldata bakarrik zela. Eta ez da hori bakarrik. Hezkuntzako langileoi ere beste mila kontuek arduratzen gaituzte (ratioak, dedikazioa…) Horiek egokitzeko eta hobetzeko itun eta marko berri bat behar da.

**MARIAJE IMAZ**

"2009-2010 urteari begira, ez gara sartzen. Presa eta behar larria dugu"

**N. Gaia aldatuta, ohi baino beranduago izan da aurtengo matrikulazio epea.**

**M. I.** Dekretu berri baten zain egon gara berandura arte. Matrikulazio garaian kontuan hartzeko berrikuntza batzuk jarri dira martxan, besteak beste eta aurtendik hasita, bi urterekin matrikulatzen dena, ziklo osorako matrikulatuta legoke. Kopuru aldetik, momentuz hazkundea dagoela ikusten da. 2 urtekoen bi talde daude baina hiru urtekoen hiru talde osatuko dira. Haur Hezkuntzan, urte bakoitzeko hiru talde aurreikusten dira.

**N. Hazkuntzak leku falta areagotuko du?**

**M. I.** Duela urte pare bat zenbait espazio berregokitu ziren. Datorren urtean ditugun ikasle guztiei tokia egiteko aukera izango dugu. Baina gero, 2009-2010 urteari begira, ez gara sartzen. Presa eta behar larria dugu. Haur hezkuntzan diren adin bakoitzeko hiru talde horiek Lehen Hezkuntzara pasatzean, ziklo horretan ere gela kopurua bitik hirura pasako da. Une honetan Lehen Hezkuntzan dagoen gela kopuruarekin espazioa betetzen dugu. Lekua behar dugu.

**N. Arazoari aurre egiteko zer egitea aurreikusten da?**

**M. I.** Harremanetan gaude Udalarekin. Udala ere jakitun da espazio beharrak zeintzuk diren. Elkarlan garrantzitsu horretatik beharrei irtenbide egoki bat ematea espero dugu, baina berriro diot, ikastolarentzat lehentasunezko gaia da eta espazio beharrei lehenbailehen irtenbide bat aurkitu behar diogu.

**N. Hezkuntza Mahaiak lagunduko dizue horretan?**

**M. I.** Horretan parte hartzen dugu. Foro egokia da, alderdi bakoitzak hezkuntzaren beharrak eta garatu beharreko ildoak nola ikusten dituen jakiteko. Sinetsi nahi dut denon artean gai izango garela, herriaren eskariari hezkuntza beharrei dagokionean, ahalik eta modurik egokienean erantzuteko.



MARIAJE IMAZENTZAT, ESPAZIO FALTA DA UNE HONETAKO KEZKA NAGUSIETAKO BAT.

**N. Hor dago baita, hezkuntza eskaintza integralaren gaia ere?**

**M. I.** Ikastolari egin zitzaion 0-16 ziklo osoa bere gain hartzeko proposamena. Eskaintza integral bat egin, hezkuntza behar guztiei erantzungo diena. Baina gai konplexua da. Haur Eskola, Udala eta ikastolak lan-talde bilerak egiten ari gara. Dauden ikuspegi ezberdinak mahai gainean jartzen ari gara. Bideragarritasuna aztertzen. Hezkuntza Mahaian gaia planteatua dago. Nire ustez, erabakiak nahi bezain azkar ezin dira hartu, nahiz eta presako gaia izatearen presioa egon badagoen.

**N. Gurasoek zeresana dute seme-alaben hezkuntzan. Sortu diren bilguneen bidez, haien parte hartzea asko indartu da azken urtean?**

**M. I.** Garai batean bazen Ikastolako Gurasoen Elkartea, gero desegin zen eta urte batzuetan ezer gutxirekin egon gara. Duela bi ikasturte berriz martxan jarri zen. Oso ekintza interesgarriak antolatzen ari dira. Gurasoek parte hartzen dutenez, beste familientzat ekintza ezberdinak antolatzeaz gain, haien arteko gaiak eztabaidatzeko ere foro polita dute. Gure ustez, onuragarria da eta ete-

kin handia atera daiteke. Gurasoak parte hartzera animatuko nituzke, eskolaren eta familiaren arteko lotura sendotzen laguntzen baitu. Betiere noski, baina gaur egun bereziki, behar-beharrezkoa ikusten dut batera funtzionatzea eskolak eta familiak.

**N. Amaitzear da aurtengoa. 2008-09 ikasturteak aldaketarik ba al dakar?**

**M. I.** HIZPRO izeneko proiektuan sartuko gara (Hizkuntza Proiektua). Helburua, ikastolak bere hizkuntza proiektua idaztea da. Hizkuntzaren trataerarako diseinatutako ikuspegitik erabakiak hartu beharko dira gero. Ikastolen Elkarteko formazio ikastaroetan ere parte hartuko dugu. Proiektuak eremu kurrikularra eta ez kurrikularra ere kontuan hartzen du; familiekiko eta beste erakundeekiko harremanetako hizkuntz beharrak, ikastola barruko hizkuntza beharrak… Lanketa luze eta sakona dator. Hezkuntza sailetik eskaera egina dago ikastetxe bakoitzak bere Hizkuntza Proiektua idatz dezan eta gauza bera Elkarbizitza proiektuaren idazketari dagokionean. Azken honekin dagoeneko hasiak gara. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza goiztiarrari lotutako Eleanitz proiektua ere martxan dugu. Bestalde, indarrean diren gainerako proiektuak hobetzen jarraitu nahi genuke.

### udarregi.com webgunea

**N. Teknologia berrietarako jauzi garrantzitsua eman duzue, Udarregi.com ataria zabalduta?**

**M. I.** Bai hala da. Barruan egindakoa kanporatzen laguntzen du beti. Familiek ikastolan egunerokoan egiten denaren berri izan eta herriko beste edonork bisita dezake. Beti ere ona dela iruditzen zaigu, indartzeko modukoa. Aurrerantzean ere nahiko genuke ahalik eta sarrera kopuru handiena izatea orrialdean. Elkarren arteko lotura sendotu eta elkarren berri izan eta emateko. Hirugarren mailako ikasleak tailer batean parte hartzen ari dira horren inguruan. Aldizkari digitala lantzen ari dira, teknologia berrietan trebatuz. Erronka berriei aurre egin behar zaie eta eskolak ezin du atzean geratu. Era honetako erronkek formazio beharrak eragiten dituzte eta ikastolak apustu argia egina dauka berrikuntza eta formazioaren alde.

## Ekainak 1, Ikastolaren Eguna

### Maiatzak 29, osteguna

**18:30** HHko bost urtekoen eta LHko 5. mailako ikasleen kantaldia Sutegin, gurasoei zuzendua.

### Maiatzak 30, ostirala

**18:00 Txotxongiloak** Sutegin: “Birusak erasoan”. Ondoren, txokolate jana pilotalekuan.

**22:30 Antzerkia** Sutegin, Hitz Ahok antolatuta: “Ogirik gabe etorri zen haurra”.

### Ekainak 1, igandea

**9:00** Txistularien esnadeia.

**9:00-11:30** LH eta DBHko ikasleen jokoak.

**10:00-13:30** LH eta DBHko ikasleen eskulanen erakusketa.

**12:00** HHko umeen jaialdia kiroldegian: “Nor da indartsuena?”.



**14:30** Herri bazkaria pilotalekuan.

Bazkalosterako antolatzaileek kantuan aritzea proposatzen dute, euskal abesti ezagunen errepertorioa astintzea. “Aita-semeak”, “Balearen bertsoak”, “Anttoni eta Antton”…abesteko tartea hartuko dute frontoian direnek. Kantuen letrak udarregi.com atarian deskarga daitezke.

## Jangelarako begiraleak behar dira

Irailean ekingo zaio 2008-2009 ikasturte berriari. Klaseak goizez eta arratsaldez izanik, ikasle asko jangelan geratzen dira bazkaltzen. Bazkalorduko zerbitzua eskaintzeko, jangelarako begiraleak behar dira. Ezinbestekoa da euskara jakitea. Interesatuek Auzo Lagun enpresakoekin jarri behar dute harremanetan. Telefono zenbakia: 943 794 611. Posta elektronikoa: rrhh.urc@auzolagun.com

## Komunikabideen eragina gazteen artean

Juan Carlos Alonso psikologoak komunikabideek seme-alabengan zer modutan eragiten duten aztertu zuen iragan astelehenean. Hitz Aho Guraso Eskolak antolatu zuen hitzaldia, Ikastolaren Egunaren harira.



## Ekainaren 7an, 77ko kinto bazkaria

1977an jaiotakoek kinto bazkaria antolatu dute. Bazkaria Aginaga sagardotegian egingo da datorren astean, ekainak 7 larunbata.

Dena den, izena emateko azken eguna ekainaren 5a izango da, osteguna. Txirristran, Irratin eta Txiribogan daude izena-emateko orriak. Menua sagardotegikoa izango da.

# Zer ikasi, ikasleen une erabakigarria

## Erdi eta goi mailako zikloetan aurre matrikulatzeko epea, ekainaren 2tik 13ra

**Irailetik aurrera hezkuntza ziklo berri bati ekingo diotenek zer egin erabakitzen ariko dira honez gero. Besteek, argi izango dute. Batzuentzat zein besteentzat, ekainaren 2tik 13ra zabalik izango da erdi eta goi mailako zikloetan aurre matrikulatzeko epea. Urnietako Salesiar ikastetxeko zuzendari Mikel Ormazabalek xehetasun gehiago ditu.**

**NOAUA. 2008-09 ikasturteak oro har zer nobedade dakartza?**

**Mikel Ormazabal.** Une honetan, trantsizio egoeran gaude, Lanbide Heziketan titulu berriak ateratzekotan baitira. 1200 eta 1400 ordukoak diren Erdi Mailako ziklo batzuk 2000 ordutara pasatzera doaz. Baina aldaketak atzerapen handiz datoz. Bospasei ziklo aldatu dira baina ikasturtean zehar aldatzeko asmotan gabiltza. Bestalde, Lanbide Heziketako lege berria atera da eta horrek ikastetxe egitura desberdinak eskatzen ditu. Eusko Jaurlaritza, ikastetxeen sailkapen hori nola burutu, lege barnean nola txertatu lantzen ari da.



HEZIKETA ZIKLOAK ESKAINTZEN DITUZTEN IKASTETXEETAN, MATRIKULAZIO KOPURUAK BEHERA EGINGO DUELA AURREIKUSTEN DUTE.

**MIKEL ORMAZABAL**

"Une honetan lan munduak eskatzen dituen teknikari kopurua betetzeko gai ez gara, ikasle faltagatik"

**N. Aniztasun handiagoa dago eskaintzan. Alor teknikotik kanpo dauden titulazioek zer moduzko harrera dute?**

**M. O.** Une honetan, gehien jaitsiko diren tituluak administrazio alorrekoak izango dira, ez baitute arrakastarik izan. Ez dago horren beharrik. Berriz, ziklo industrialei eman behar zaie erantzuna. Hor izugarrizko kezka dago. Une honetan lan munduak eskatzen dituen teknikari kopurua betetzeko gai ez gara, ikasle faltagatik.

**N. Matrikulazioari begira, zer nolako aurreikuspenak beraz?**

**M. O.** Ikasleen kopurua jaitsiko da. Kezka asko dago ikastetxeetan. Ikastetxeen eta irakasleen etorkizuna hor dago. Kanpora begira, enpresek behar dituzten teknikariei erantzunik ez zaie ematen. Unibertsitateak ere jendea nahi du, baina ikasle gutxiago dago. Lehia dago Lanbide Heziketa eta Unibertsitatearen artean.

**N. Datozen urteetan ikasle faltak bere horretan jarraituta, ondorioak kezkagarriak izan daitezke?**

**M. O.** Bai. Lau urteetan izango da. Lanbide Heziketako ikastetxeok irakasleen eszedenteak sor daitezkeen kasuetan, kontratu programen bidez, irakasle horiek hezkuntza sistema barruan mantentzea eskatzen ari gara; tarte horretan, formakuntza berri bat egin dezaten. Lau urte barru ikasle kopurua igotzen den heinean, irakasle eta ingeniari horiek beharko ditugu. Hezkuntza Sailak horretarako borondatea du.

**N. Bestela, zer nolako erronkak ditu Lanbide Heziketak?**

**M. O.** Teknologia berrietan murgildutako hezkuntza eskaintzea. Enpresek eskatzen dutena, baloreetan oinarrituko hezkuntza da. Bestela, Teknika erakundearekin elkarlanean proiektu berriak gizarteratzea, hitzarmenen bidez enpresekiko hartu eman estua lortzea, ikastetxeetako ingeniarien birziklatzea enpresetan egitea, ikasleek kontratu bidez lana eta ikasketak uztartzea...

# Mikel Ormazabal
# “Lanbide Heziketan aukera handiak daude”

**NOAUA! Matrikulazio garaia badator. Zuengana doan ikasle berri horri zer esan?**

**Mikel Olazabal.** Gustuko duena aukera dezala, baina ikusi baita ere gustuko duen titulazio horrek zer irtenbide profesional dituen. Ondo pentsa dezala zer egin nahi duen. Lanbide Heziketan aukera handiak daude. Asko lantzen ari gara ikasleen sormena. Merezi du, lan mundurako oso ondo prestatzen du.



LANBIDE HEZIKETAN TITULU BERRIAK SORTZEKOTAN DIRA.

MIKEL ORMAZABAL

“2012 arte, ikasle kopurua batxilergoan zein Lanbide Heziketan oso txikia izango da”

**N. DBH eta Batxilergoekin alderatuta, jaitsi egiten da zikloetan euskaraz matrikulatzen direnen kopurua. Zer modutan interpretatu behar da hori?**

**M. O.** Lanbide Heziketako ikastetxeok guztia euskaraz eskaintzeko borondatea, nahia eta helburua dugu. Ikasle guztiak ikasketak euskaraz egitea eskatuz etorriko balira, euskaraz emango litzateke. Baina une honetan, ez da halakorik gertatzen eta gelak osatzeko ikasle kopurua oso murritza da. Hemendik 2012 arte, ikasle kopurua bai batxilergoan zein Lanbide Heziketan oso txikia izango da. Lehen Derrigorrezko Hezkuntzan izandako ikasle krisialdia, orain etorri zaigu etapa hauetara. Horrek eredu bakarra jartzea ekarri digu, B eredu nahiko sakona. Ikastetxeok ahal dugun ikasleei ahal dugun neurrian erantzuna euskaraz eman nahi diegu. Agian gehiago egin beharko genuke, baina horretarako ere malgutasun handirik ez dugu.

# Buruntzaldeko udalen kanpaina berria

*Aukera ezazu, aukera gehiago eta hobeak izan ditzazun* lemapean aurkeztu dute Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondorengo ikasketak euskaraz egitera bultzatzeko kanpaina.

Batxilergo edota Erdi nahiz Goi Mailako zikloetako eskaintzaren batean matrikulatzera doazen ikasleei zuzendutako ekimena da, aurrekoetan ez bezala hezkuntza etapa honetan D eredua ez baita nagusi gaur egun.

Arestian aipatu den bezala, erdi eta goi mailako zikloetan aurre matrikulatzeko epea ekainaren 2an hasi eta ekainaren 13an amaituko da.



## Esteban Arrillaga, Usurbilgo Judo Taldeko entrenatzailea

# “Gure bertute nagusiak konpromisoa eta lana dira”



Aurreko asteburuan txapeldun izan ziren neskak. Mutilak seigarren geratu ziren.

**Pasa den larunbatean, Espainiako Liga Txapelketa irabazi zuen nesken taldeak. Sara Quijano, Nerea Sanz, Oiana Blanco, Tamara Varela, Nerea Arruti eta Marijo Sardonek osatu zuten taldea (Maier Uriarte ere taldekoa da baina Erroman zen selekzioarekin eta bere ordez Sara Quijano aritu zen). Mutilek, aldiz, seigarren amaitu zuten txapelketa: Andoni Aizpurua, Ibai Peña, Aitzol Arrospide, Jaime Torre, Xabier Urkizu, Sergio Montes, Iker Lizarribar eta Egoitz Mora (azken hau, lesioa tarteko ez zen lehiatu). Mariaje Dominguez eta Esteban Arrillaga dira judo taldeko entrenatzaileak. Azken honen esanetan, “konpromisoa eta lana dira gure taldearen bertute nagusienak”.**

**NOAUA! Nesken taldeak txapelketa nagusia irabazi berri du. Zeintzuk izan dira zailtasun handienak eta, batez ere, zeintzuk izan dira zuk zuzentzen duzun taldeak dituen bertuteak.**

**Esteban Arrillaga.** Mutiletan nahiz nesketan, gure bertute handienak konpromisoa eta lana dira. Taldearen alde lan egiteko ahalegina. Kirol hau indibiduala da eta arrakasta handienak maila indibidualean neurtzen dira. Baina gure taldean, kirolari denek garaipenak eta porrotak berdin-berdin sentitzen dituzte.

Zailtasun handiena, aldiz, hasiera batean konfiantza falta izan daiteke; eta bestetik, herri txiki batetik gatozen aldetik, beste talde handien parean txiki sentitzea.

**N. Ohorezko Ligan, mutilen taldea seigarren izan zen. Izar handiak izan gabe, ligan izarren maila berean lehiatu dira.**

**E. A.** Taldeka ematen duten maila ez dute bakarkako borroketan errepikatzen, baina euren arteko harremana estua da oso. Seigarren postua ondo dago baina podiumean egoteko moduan izan dira, izan ere, norgehiagoka asko gutxigatik galdu genituen (3-2) eta garaipenen bat gure aldekoa izan balitz, toki hobean bukatuko genukeen.

**N. Etorkizunari begira, zeintzuk dira taldeak dituen erronka nagusiak?**

**E. A.** Datorren denboraldian podiumera iristea, hori da gure erronka nagusia. Estatu mailan, bi talde bakarrik dituzte mutil zein neska taldeak goi mailan. Madrilgo Sotillo eta gu.

**N. Batzuk kanpotarrak izan arren, Oiardo da zuen bilgunea. Gustura zaudete eskura duzuen azpiegiturarekin?**

**E. A.** Herria asko hazi da, baina instalazioak ez. Orain dena gutxi da. Aldagelak, pistak… Gure kasuan, zutaberik gabeko toki handiago bat beharko genuke, erronka handiagoei aurre egin ahal izateko. 40 pertsona inguru biltzen gara 130 metro koadrotan.



**Hasi da Usurbil Cup Txapelketa.** Lehengo asteburuan jokatu ziren lehen futbol partidak. Asteburu honetan, ordea, ez da partidarik izango. Ekainaren 7an izango du jarraipena futbol txapelketak.

# Zuzendaritzan ez bada jende berria sartzen, Usurbil Futbol Taldea desagertu egingo da

Aurreko astean iragarri genuen bezala, kinka larrian da Usurbil FT taldea. Zuzendaritzan daudenak taldea uzteko borondatea azaldu dute. Baina inor ez dago erreleboa hartzeko prest. Aurreko larunbatean egin zen lehen bilera baina arazoak bere horretan dirau. **Zuzendaritza Taldekoek bigarren bilera baterako deia egin dute, larunbat honetan eguerdiko 12:00etan Sutegin**. Bilera horretan ez bada inor animatzen, erreleborik ez bada ziurtatzen, kluba desagertzea izango da hurrengo pausua. Beraz, Usurbil Futbol Taldearen alde zerbait egin nahi duenak agertu dadila hurrengo larunbatean eguerdiko 12:00etan Sutegiko areto nagusira.

Hitz gutxitan, ez bada jende berria animatzen, Usurbil Futbol Taldearen desagertzeko prozesua martxan jarriko da.



**Gipuzkoako Txapeldunak.** Udarregi ikastolako infantil mailako futbol taldeak Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa irabazi du, Bergararen aurkako finalean 5-1 irabazi eta gero. Larunbat honetan, goizeko 10:00etan, Euskadiko Txapelketako lehen jardunaldia jokatuko dute Berioko futbol zelaian. Eta igandean, toki berean eta ordu berean, bigarren jardunaldia. Animo!

## Ostiral honetan argituko da Donostia eta Usurbil arteko norgehiagoka

**Donostia 2-1 aurreratu zen aurreko astean, Atano III pilotalekuan jokatutako partidetan. Itzulerako partidak ostiral honetan jokatuko dira Usurbilgo frontoian, arratsaldeko 19:30ean.**

2-1 daude aurretik donostiarrak, baina dena erabakitzeko dagoenez, ostiral honetako partidetan ikusmina handia izango da.

Enrike Huizik, pilotarien izenean, zorionik beroenak eman nahi dizkie pilotalekura joaten diren herritar guztiei, “beraien laguntza eta animoengatik. Eskertzekoa da eta harro gaude horrelako zaletuak izateagatik. Horrez gain, eskatu nahi diegu beraien animoak herritarrei zuzentzea, aurkariak eta epaileak beti ere errespetatuz”.

Bestetik, Usurbilgo XXXVI Pilota Txapelketa azken zortzirenetan da. Ostiral honetan, 19:00etan jokatuko dira lehen partidak Aginagako pilotalekuan.



PARTIDAK ARRATSALDEKO 19:30EAN HASIKO DIRA.

Larunbatean eta igandean partida gehiago jokatuko dira Aginagan, baina goizez, 10:30etik aurrera.

### Herri Arteko Txapelketa

**JOANEKO PARTIDAK, MAIATZAK 25**

**Kadete mailan:**
Manzisidor-Zinkunegi (Donostia) 12
Xabier Santxo-Markel Galarraga 22

**Jubenil mailan:**
Fernandez-Arzelus (Donostia) 22
Imanol Esnaola-Eñaut Esnaola 16

**Nagusi mailan:**
Baez anaiak (Donostia) 22
Enrike Huizi - Jabier Santxo 16

## Ekainaren 14an, Eskubaloi Festa

Usurbil KE taldeak antolatuta, Eskubaloi Festa ospatuko da ekainaren 14an. Arratsaldeko 16:00etan hasita, kadete, jubenil, senior eta lehen ibilitako jendearen arteko partidak jokatuko dira. Festak jarraipena izango du Saizarren, afari batekin.

Tiketak salgai daude herriko tabernetan; eskubaloiko zuzendaritzako kideen bitartez ere eskuratu daitezke.

Menua sagardotegikoa izango da eta prezioak hauek: gazteak (18 urtetik behera) 19 euro eta helduek (18 urtetik gora) 25 euro. Tiketak hartzeko epea ekainaren 7an amaituko da.

## Futbol taldeko errifa

Maiatzaren 23ko ONCEko zenbakiarekin bat, Usurbil FTren errifaren zenbaki saritua 9.289 izan da. Saria jasotzeko jarri harremanetan honako telefono zenbakian 665 73 19 70.

# Autobus Ordutegia

## Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 07.40 | >> | 08.05 | 08.15 | 08.25 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 08.40 | >> | 09.05 | 09.15 | 09.25 |
| 09.10 | 09.30 | 09.35 | 09.45 | |
| 09.40 | >> | 10.05 | 10.15 | 10.25 |
| 10.40 | >> | 11.05 | 11.15 | 11.25 |
| 11.40 | >> | 12.05 | 12.15 | 12.25 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 12.40 | >> | 13.05 | 13.15 | 13.25 |
| 13.10 | 13.30 | 13.35 | 13.45 | |
| 13.40 | >> | 14.05 | 14.15 | 14.25 |
| 14.10 | 14.30 | 14.35 | 14.45 | |
| 14.40 | >> | 15.05 | 15.15 | 15.25 |
| 15.10 | 15.30 | 15.35 | 15.45 | |
| 15.40 | >> | 16.05 | 16.15 | 16.25 |
| 16.40 | >> | 17.05 | 17.15 | 17.25 |
| 17.40 | >> | 18.05 | 18.15 | 18.25 |
| 18.10 | 18.30 | 18.35 | 18.45 | |
| 18.40 | >> | 19.05 | 19.15 | 19.25 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | |
| 19.40 | >> | 20.05 | 20.15 | 20.25 |
| 20.15 | 20.35 | 20.40 | 20.50 | 21.00 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.15 | 22.35 | 22.40 | 22.50 | 23.05 |

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | >> | 07.30 |
| 07.15 | 07.25 | 07.35 | >> | 08.00 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | >> | 08.30 |
| 08.15 | 08.25 | 08.35 | >> | 09.00 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | >> | 09.30 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | >> | 10.30 |
| | 10.30 | 10.40 | 10.45 | 11.10 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | >> | 11.30 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | >> | 12.30 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | >> | 13.30 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | >> | 14.30 |
| | 14.30 | 14.40 | 14.45 | 15.10 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | >> | 15.30 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | >> | 16.30 |
| | 16.30 | 16.40 | 16.45 | 17.10 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | >> | 17.30 |
| 17.45 | 17.55 | 18.05 | >> | 18.30 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | >> | 19.30 |
| | 19.30 | 19.40 | 19.45 | 20.10 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | >> | 20.30 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.10 | 21.30 |
| 21.15 | 21.25 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |

## Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 08.00 | 08.20 | 08.25 | 08.35 | 08.45 |
| 09.00 | 09.20 | 09.25 | 09.35 | 09.45 |
| 10.00 | 10.20 | 10.25 | 10.35 | 10.45 |
| 11.00 | 11.20 | 11.25 | 11.35 | 11.45 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25 | 12.35 | 12.45 |
| 13.00 | 13.20 | 13.25 | 13.35 | 13.45 |
| 14.00 | 14.20 | 14.25 | 14.35 | 14.45 |
| 15.00 | 15.20 | 15.25 | 15.35 | 15.45 |
| 16.00 | 16.20 | 16.25 | 16.35 | 16.45 |
| 17.00 | 17.20 | 17.25 | 17.35 | 17.45 |
| 18.00 | 18.20 | 18.25 | 18.35 | 18.45 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25 | 19.35 | 19.45 |
| 20.00 | 20.20 | 20.25 | 20.35 | 20.45 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.00 | 22.20 | 22.25 | 22.35 | 22.45 |
| 22.30 | 22.50 | 22.55 | 23.05 | 23.15 |

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 17.45 | 17.55 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.45 | 21.55 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |

### LARUNBAT GAUETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 00.00 | >> | 00.25 | 00.35 | 00.45 |
| 01.00* | >> | 01.25* | 01.35* | 01.45* |
| 02.00 | >> | 02.25 | 02.35 | 02.45 |
| 04.00 | >> | 04.25 | 04.35 | 04.45 |
| 05.00* | >> | 05.25* | 05.35* | 05.45* |
| 06.00 | >> | 06.25 | 06.35 | 06.45 |

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 23.15 | 23.25 | 23.35 | >> | 00.00 |
| 00.15* | 00.25* | 00.35* | >> | 01.00* |
| 01.15 | 01.25 | 01.35 | >> | 02.00 |
| 02.15* | 02.25* | 02.35* | >> | 03.00* |
| 03.15* | 03.25* | 03.35* | >> | 04.00* |
| 04.15* | 04.25* | 04.35* | >> | 05.00* |
| 05.15 | 05.25 | 05.35 | >> | 06.00 |

# Tren Ordutegia

| Zarautz | Orio | Usurbil | Donostia |
|---|---|---|---|
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 08.00 | 08.15 | 08.24 | 08.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 09.00 | 09.15 | 09.24 | 09.39 |
| 10.00 | 10.15 | 10.24 | 10.39 |
| 11.00 | 11.15 | 11.24 | 11.39 |
| 12.00 | 12.15 | 12.24 | 12.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 13.00 | 13.15 | 13.24 | 13.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 14.00 | 14.15 | 14.24 | 14.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 15.00 | 15.15 | 15.24 | 15.39 |
| 15.30 | 15.45 | 15.54 | 16.09 |
| 16.00 | 16.15 | 16.24 | 16.39 |
| 16.30 | 16.45 | 16.54 | 17.09 |
| 17.00 | 17.15 | 17.24 | 17.39 |
| 17.30 | 17.45 | 17.54 | 18.09 |
| 18.00 | 18.15 | 18.24 | 18.39 |
| 18.30 | 18.45 | 18.54 | 19.09 |
| 19.00 | 19.15 | 19.24 | 19.39 |
| 19.30 | 19.45 | 19.54 | 20.09 |
| 20.00 | 20.15 | 20.24 | 20.39 |
| 21.00 | 21.15 | 21.24 | 21.39 |
| 22.00 | 22.15 | 22.24 | 22.39 |
| 22.30 | 22.45 | 22.54 | 23.09 |

| Donostia | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 07.17 | 07.33 | 07.44 | 07.50 |
| 07.47 | 08.03 | 08.14 | 08.20 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 08.47 | 09.03 | 09.14 | 09.20 |
| 09.47 | 10.03 | 10.14 | 10.20 |
| 10.47 | 11.03 | 11.14 | 11.20 |
| 11.47 | 12.03 | 12.14 | 12.20 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 12.47 | 13.03 | 13.14 | 13.20 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 13.47 | 14.03 | 14.14 | 14.20 |
| 14.17 | 14.33 | 14.44 | 14.50 |
| 14.47 | 15.03 | 15.14 | 15.20 |
| 15.17 | 15.33 | 15.44 | 15.50 |
| 15.47 | 16.03 | 16.14 | 16.20 |
| 16.17 | 16.33 | 16.44 | 16.50 |
| 16.47 | 17.03 | 17.14 | 17.20 |
| 17.17 | 17.33 | 17.44 | 17.50 |
| 17.47 | 18.03 | 18.14 | 18.20 |
| 18.17 | 18.33 | 18.44 | 18.50 |
| 18.47 | 19.03 | 19.14 | 19.20 |
| 19.17 | 19.33 | 19.44 | 19.50 |
| 19.47 | 20.03 | 20.14 | 20.20 |
| 20.47 | 21.03 | 21.14 | 21.20 |
| 21.47 | 22.03 | 22.14 | 22.20 |

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN / Astelehenetik Igandera eta JAIETAN

Bezeroen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es

## Eguneko goardiako farmaziak

**Maiatzak 29, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Maiatzak 30, ostirala**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

**Maiatzak 31, larunbata**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

**Ekainak 1, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Ekainak 2, astelehena**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Ekainak 3, asteartea**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Ekainak 4, asteazkena**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Ekainak 5, osteguna**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Ekainak 6, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Ekainak 7, larunbata**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

**Ekainak 8, igandea**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

***GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ***
***Correa Farmazia** (22:00-09:00), Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

## Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
7:55*/ 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* /9:00 / 12:45(T)
13:45* /18:45

**LARUNBATETAN**
**Zubieta-Donostia**
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**
**(Gipuzkoa plazatik)**
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

## Agenda

**Maiatzak 28, asteazkena**

- **Felix Aizpurua VII. Literatura Lehiaketako sari banaketa,** 18:00etan Sutegin.
- **"Otorduetan sortzen diren gorabehera emozionalak", hitzaldia** 18:00etan Zubietako Eskola Txikian.

**Maiatzak 29, osteguna**

- **Bidezko merkataritzaren inguruko tailerra,** 18:00etan Zubietako frontoi inguruan.

**Maiatzak 30, ostirala**

- **Ipuin kontalaria** Zubietako Eskola Txikian, 17:00etan. 18:00etan, nesken pala partidak eta Joko Garbiren erakustaldia frontoian. Segidan txokolatada.
- **"Birusak erasoka datorzkigu" antzerkia,** 18:00etan frontoian. Hitz-Ahok eta Kutxak antolatuta. Sarrera, doan.
- **"Ogirik gabe etorri zen semea" antzerkia,** 22:30ean Sutegin, Hitz-Ahok eta Kutxak antolatuta. Antzezlea, Edurne Agirrezabala. Sarrera, doan.

**Maiatzak 31, larunbata**

- **"Zuk Zuk jaunaren alfabetoa",** 17:00etan Santuenea elkartean. Plis, Plas, Txalo ta Jolas.
- **Gelditour jaialdia,** 20:30ean Usurbilen: Sutagar, Kaotiko, Etsaiak, Naizroxa, Dj Bull eta Garraxi musika taldeak. Sarrerak egunean bertan 13 euro. Aldez aurretik, 11 euro, Txiribogan.

**Ekainak 1, igandea**

- **Ikastolaren Eguna** (ikus erreportajea, 10. orrialdea).

**Ekainak 3, asteartea**

- **Udajolasen izena emateko azken eguna.** Izen-emate orriak udaletxean, Sutegin eta NOAUA!n. Informazio gehiago: 943 360 321.

# Sutagar, Kaotiko eta Etsaiak, AHTren kontrako kontzertuan

**Abiadura Handiko Trena Gelditu! plataformakoek dena prest zuten. Donostiako Udalarekin ere hitz eginda zegoen. Baina azken orduan arazoak egon dira hiriburuko udalarekin eta, horregatik, AHT Gelditu! plataformakoek Usurbilera ekarri dute maiatzaren 31ko jaialdia.**

Puntako taldeak hurbilduko dira gure artera: Sutagar, Kaotiko, Etsaiak, Naizroxa, Dj Bull eta Garraxi musika taldeak. Gaueko 20:30ean hasiko da eta goizaldera arte luzatuko da makro-jaialdia.

Askatasuna plazan bokatak erosteko eta edatekoa eskuratzeko txosna jarriko dute AHT Gelditu! Elkarlanekoek. Sarrerak egunean bertan 13 eurotan eskura daitezke. Aldez aurretik, 11 eurotan, Txiribogan.



SARRERAK ALDEZ AURRETIK TXIRIBOGAN DAUDE SALGAI, 11 EUROTAN.

# "Zuk Zuk jaunaren alfabetoa", antzezlana Santuenea elkartean

Aurreko astebukaeran hasi zen Plis, Plas, Txalo ta Jolas. Gaztetxoei zuzendutako ziklo honek Santuenea elkartean izango du jarraipena, larunbat honetan arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Bernardo Atxagak idatzitako ipuinean oinarritutako antzezlana da larunbat honetan Santuenean ikus ahal izango duguna. Aktore eta objektuak nahasten dira lanean, txotxongiloek, kasu honetan letrek, protagonismo berezia hartzen dutelarik. Oso testu interesgarria da, egitura eta mezu aldetik, eta Irrintzi taldeak egin dizkion ekarpenei esker, haur eta gurasoentzat erakargarria den antzezlana da ezbairik gabe.



EGURALDIAGATIK, KALEZARREN BEHARREAN ASKATASUNA PLAZAN EGIN ZEN LARUNBATEKO JOLAS TXOKOA.

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 · 659602789

# GAZI, GOZO, GEZA

## ETXEBIZITZA

- Pisua salgai Muna Lurran, 2 logela, komuna eta egongela sukaldearekin elkartua. Oso eguzkitsua. 65m2 guztiz berrituak. Altzariak barne, 250.000 euro. 688651103. Agentziarik ez
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00etatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 51.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaintzak

- Antxetan zerbitzaria behar da. Astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 16:00etara. Nominan jartzen diona ordainduko zaio. 943 37 03 44.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

### Lan-eskaerak

- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- Itsas-txakurkumeak salgai: marroi kolorekoak, txertatuak eta oso politak. Tel: 615715493 Elena.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Sagardo Egunean Nintendo DS lite gris bat galdu genuen bolatokian. Eskertuko da itzultzea. 943372151.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tlf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazalete itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txurigorri bat galdu dut. 943130036.
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauzka. 943210330.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatako beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak!**
Ekainaren 1ean, 11 urte beteko dituzu. Zorionak Maialen, Bethoven eta gurasoen partez!



**Zorionak Julen!**
Nahiz eta pixkat berandu izan, Maiatzaren 26an 10 urte bete zenituelako, Zorionak! Muxu handi bat gurasoen partetik.

## JAIOTZAK

**Paul Arruti Matxain,** maiatzaren 3an.
**Iraia Lasa Aizpurua,** maiatzaren 9an.
**Malen Goyache Orbegozo,** maiatzak 11.
**Martin Azurmendi Alkorta,** maiatzak 17.
**Aitzol Portu Txapartegi,** maiatzaren 18an.
**Alba Calvo Rodriguez,** maiatzaren 18an.
**Mikel Maeztu Maiz,** maiatzaren 18an.



**Zorionak Eneko eta Ama!!**
Aste honetan biok egiten dituzue zorionak eta etxeko guztion partez besarkada haundi bat eta zorionak!!!



Aupa mutilak! Ondo pasa aurtengo Usurbil Cup-en eta eutsi goiari!!




## Euskarako planak enpresetan 2004. urtean




### Eskualdean 2008. urtean

| | |
|---|---|
| Andoain | Mondragon Sistemas de Información |
| | Lirtz S. Coop. |
| Astigarraga | Tximeta S.A. |
| Hernani | Orona S. Coop. |
| | Perfiles Especiales Selak S.A. |
| | Hitfor Ahelkutaritza |
| Lasarte-Oria | Aduriz de Lasarte S.A. |
| Urnieta | Dennan S.A. |
| Usurbil | Fagor Automation - Berriola S.Coop. |
| | S. Izaguirre S.A. |
| | Fagor V. Lubaraga Usurbil S.A. |

# Euskaraz ikasteko aukerak Buruntzaldean

## 2008 - 2009 ikasturtea

| Erdi-mailako heziketa-zikloak | Ikastetxea | Herria |
|---|---|---|
| Ekipo eta instalazio elektroteknikoak | Hernani BHI - | |
| Mekanizazioa | Santa Barbara auzoa z/g - 943 551 188 | Hernani |
| Administrazio kudeaketa | | |
| Mekanizazioa | | |
| Ekipo eta instalazio elektroteknikoak | Usurbil GLHBI - Artiola bidea, 20 - 943 364 600 | Usurbil |
| Makinaria eta lineen ekoizpenen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa | | |
| Hotz, giroko eta bero sortzeko instalazioen muntaketa eta mantenimendua | | |
| Mekatronika (E) | La Salle Berrozpe Ikastetxea - | |
| Makinaria eta lineen ekoizpenen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa (E) | La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557 | Andoain |
| Ekipo eta instalazio elektroteknikoak (E) | Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - | |
| Makinaria eta lineen ekoizpenen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa (E) | Ergoien auzoa, 6 - 943 551 799 | Urnieta |
| "(E)" Eredean ikasgaiak zein hizkuntzatan emateko [illegible] | | |

[illegible]

| Goi-mailako heziketa-zikloak | Ikastetxea | Herria |
|---|---|---|
| Mekanizazio bidezko produkzioa | La Salle Berrozpe Ikastetxea - 943 590 557 | Andoain |
| Bizarte integratzea | Leizaran BHI - Plazaola kalea, 23 - 943 300 078 | Andoain |
| [illegible] | [illegible] - Aita Kardaberaz - 943 594 195 | Andoain |
| Produktu mekanikoen garapena | Hernani BHI - | |
| Instalazio elektroteknikoak | Santa Barbara auzoa z/g - 943 551 188 | Hernani |
| Administrazioa eta finantzak | | |
| Mekanizazio bidezko produkzioa | Usurbil GLHBI - | |
| Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak | Artiola bidea, 20 - 943 364 600 | |
| [illegible] | | Usurbil |
| Turismoko [illegible] | | |
| Administrazioa eta finantzak (E) | La Salle Berrozpe Ikastetxea - | |
| Produktu elektronikoen garapena (E) | La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557/Andoain | |
| Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak (E) | | |
| Instalazio elektroteknikoak (E) | Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - | |
| Argitalpen [illegible] eta produkzioa (E) | Ergoien auzoa, 6 - 943 551 799 | Urnieta |
| Arte grafikoen [illegible] produkzioa (E) | | |

"(E)" Eredean ikasgaiak zein hizkuntzatan emateko [illegible]

| Batxilergoak | Ikastetxea | Herria |
|---|---|---|
| Teknologia | Aita Larramendi Ikastola | |
| Giza eta gizarte zientziak | [illegible] - 943 593 525 | Andoain |
| Teknologia | La Salle Berrozpe Ikastetxea - | |
| Giza eta gizarte zientziak | La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557 | Andoain |
| Teknologia | Hernani BHI - | |
| Giza eta gizarte zientziak | Santa Barbara auzoa, z/g | |
| Natur eta osasun zientziak | 943 551 188 | Hernani |
| Giza eta gizarte zientziak | Lasarte-Usurbil BHI | |
| Teknologia | Buenos Aires etxbidea, 1 - 943 372 052 | Lasarte-Oria |
| Natur eta osasun zientziak | Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - | |
| Giza eta gizarte zientziak | Ergoien auzoa, 6 | |
| Teknologia | 943 551 799 | Urnieta |
| Teknologia | | |
| Natur eta osasun zientziak | Leizaran BHI - Plazaola kalea, 23 | |
| Giza eta gizarte zientziak | 943 300 078 | Andoain |
| Natur eta osasun zientziak (E) | La Salle Berrozpe Ikastetxea - 943 590 557 | Andoain |

"(E)" Eredean ikasgaiak zein hizkuntzatan emateko [illegible]

BURUNTZALDEA

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalelako Euskarako Batzordeak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

La Salle Berrozpe Ikastetxea
Aita Larramendi Ikastola
Hernani BHI
Lasarte-Usurbil BHI
Salesiar Ikastetxea
Usurbil GLHBI
Leizaran BHI
Zine eta bideo eskola

berritzegune

Ekainaren 2tik 13ra zabalik izango da erdi eta goi mailako zikloetan AURRE MATRIKULATZEKO epea

aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera

# udajolas

**udaleku** irekiak

**4-12 urte** bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago.

**Uztailaren 3tik 30ra**
**Ordutegia: 09:30-13:30**

**Gehienezko plaza kopurua 95 umekoa** izango da. Lehendabizi inskribatzen diren 95ak onartuko dira, ez gehiago.

Izen emateko epea: **maiatzaren 26tik ekainaren 3ra** (biak barne), astelehenetik ostiralera 17:00tatik 19:00ra

Izen ematerakoan ordainagiriaren kopia eta izen emateko orria ekarri behar dira.

Lekua: Noauaren egoitzan.

Kuota: 70€

Famili ugaria: 59€

Ordainketa LABORALeko kontu honetan egin eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi:
3035 0140 30 1400900017

